



CROSSMEDIA

KANAL ANITZEKO KOMUNIKAZIOA

HONAKO ELEMENTUAK ERABILTZEN DIREN KOMUNIKAZIO-KANPAINA:

inprimaki pertsonalatuak, SMS
 pertsonalatuak, web toki pertsonalatuak
 bezero bakoitzarentzat (PURL), berrien buletin
 pertsonalatuak (newsletter), gizarte-sareekin
 lotura, QR kodeak...

CROSSMEDIA

Kanal anitzeko komunikazioa

Nola funtzionatzen du?

- Enpresaren datu-basetik abiatuta, komunikazio-beharrak aztertzen dira. Bezeroen talde batzuk (segmentazioa) aukeratuko dira eta multimedia kanal egokienak zehaztuko dira.
- Ondoren, elementuak diseinatuko dira: inprimakiak, SMSak, URL pertsonalizatuak, newsletterrak, mezuak gizarte-sareetan...
- Kanpaina garatuko da.
- Kanpainaren emaitzak grafikoen eta eskemen modura unean bertan ikus daitezke. Nolanahi ere, argi eta garbi erakusten dute helburuak bete al diren eta inbertsioa itzuli al den (ROI).

Zure bezeroen datu-base bat ba al duzu? Eguneratua al dago? Gustuko al zenuke eguneratu, findu eta zabaltzea?

Pentsatu al duzu zer onurak dituen bezeroei galdeketa pertsonalizatua egiteak?

Interesatua al zaude kanal anitzeko komunikazio-kanpaina batean, zure produktuetan interesa duten bezeroen zerrenda areagotzeko?

Ba al dakizu zer den birusaren komunikazio-kanpaina? (Bezero batek zure produktua lagun edo ezagun bati gomendatzen dio ordainaren truke: deskontua, oparia, gonbidapena... eta gure datu-basean sartzen da).

Gustatuko al litzaizuke kanpainaren inpaktua egiazko denboran ezagutzea? Adibidez,

SMS onartu eta baztertuen kopurua, web orrialde pertsonalizatuan sarrerak, bezero berriei gomendioak...

Unean bertan komunikazio-kanpainan inbertitutakoaren aprobeixamendua, hau da, ROI izeneko edo inbertsio-itzulera jakin nahi al zenuke?

KONPONBIDEAK

Kanal anitzen kanpainak edo crossmedia izenekoak hurrengoetarako diseinatu eta gauzatzen dira:

- Gure datu-baseko bezeroekin harremanetan jartzeko.
 - Asetze-maila orokorrari edo zerbitzu zehatzari buruzko galdeketak
 - Gure produktuen eskaintzak
- Bezero berriei sustapen-kanpaina berriak egiteko:
 - Enpresaren aurkezpena
 - Produktu bereziren baten eskaintza
- Ohiko bezeroen bitartez kontaktu berriak lortzeko, pizgarri baten truke (deskontuak, doako zerbitzuak, sustapen-itxak... enpresa lagunei edo ezagunei gomendatuz: Hori birus-kanpaina deritza.